

6. ORDENANTZA

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Udal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta eskatzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

3. artikulua

Eskaera baten ondorioz edo partikularren egintza zein hutsegiteek zeharka eragindakoaren ondorioz, Toki Administrazioak eskaintzen duen zerbitzua edo burutzen duen jarduera dugu zergagaia.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua

1.- Honako hauek izango dira zergapeko subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.

2.- Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira:

- a) Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura ekarri edo horiei eragiten dieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan: higiezin horien jabeak. Hala dagokienean, jabe horiek dagozkien onuradunei ordainarazi ahal izango dizkiete kuotak.
- b) Hainbat zerbitzurengeatik (su itzaltze eta prebentzioa, aurrien prebentzioa, eraikuntza eta eraispena, salbamendua eta, oro har, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuak, zerbitzua mantentzea barne) ezarritako tasetan: arriskueterako aseguru-etxeak.
- c) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan: obren eraikitzaileak edo kontratistak.



5. artikulua

Tasak ordaintzera behartuta daude:

a) partikularren eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.

b) partikularrek eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jarduerak badira: egintza edo hutsegite horiek leporagarri dituztenak.

6. artikulua

Ordenantza honetatik eratortzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ere erantzungo dute.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

7. artikulua

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V. ZERGA OINARRIA

8. artikulua

Eranskinean jasotakoaren arabera, zerbitzua eskaintzen den aldi bakoitzak eratzten du zerga oinarria.

VI. KUOTA

9. artikulua

1.- Eranskinean ezarritakoaren arabera, zerga kuota finkatzeko tarifa bat aplikatu, espresuki erabakitako kopuru finko bat ezarri edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliko dira.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

10. artikulua.

1.- Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa.

VIII- LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

11. artikulua.

Toki Administrazioak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da, Eranskinak ordainarazpen bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.



IX - TASEN KUDEAKETA

12. artikulua.

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

X. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta bere Eranskina, 2016ko urriaren 18an egindako Osoko Bilkuran onartu zituen Udalbatzak behin betikoz, 2017ko urtarrilaren 1ean jarriko dira indarrean, eta hala jarraituko dute aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean.

XI. ALDAKETEN HISTORIALA

OSOKO BILKURAREN DATA ALDAKETAK:

INDARREAN SARTU DEN EGUNA.

2002.10.31	2003.01.01	9 eranskinetako tarifak
2003.02.07	2003.04.11	Errautsen kutxa gehitu da, 4. eranskina
2003.10.30	2004.01.01	9 eranskinetako tarifak eta 10.,11. eta 12. eranskinak gehitu
2004.10.28	2005.01.01	12 eranskinetako tarifak
2004.05.10	2004.08.06	13. eranskina gehitu
2005.10.27	2006.01.01	13 eranskinetako tarifak eta 14. eranskina gehitu
2006.03.16	2006.05.23	Kontzeptu berria 14. eranskinean
2006.12.26	2007.01.01	14 eranskinetako tarifak
2007.12.26	2008.01.01	14 eranskinetako tarifak
2008.12.29	2009.01.01	14 eranskinetako tarifak
2009.02.02	2009.04.07	Hobari berriak 9. eranskinean
2009.04.07	2009.07.01	6. eranskinetako tarifak
2009.12.28	2010.01.01	7. eta 9. eranskinetako tarifa batzuk (ura eta kiroldegiko txartel bateratua Gainontzeko tarifak mantendu. Kontzeptuak 1, 2, 3, 4, 6 eta 9. eranskinetan.
2010.10.27	2011.01.01	Eranskin guztietako tarifak
2011.12.27	2012.01.01	Eranskin batzuk aldatzen dira
2012.12.20	2013.01.01	Eranskin batzuk aldatzen dira
2013.10.29	2014.01.01	Eranskin batzuk aldatzen dira
2014.10.28	2015.01.01	Eranskin batzuk aldatzen dira
2015.10.20	2016.01.01	Eranskin batzuk aldatzen dira
2016.10.18	2017.01.01	Eranskin batzuk aldatzen dira



1 ERANSKINA

HIRIGINTZA LIZENTZIAK EMATEAGATIKO TASAK

Lehenengoa.- Hirigintza lizentziak emateagatiko tasak honako hauek izango dira:
OBRA LIZENTZIA:

1.- Etxebizitzatarako lizentziak.....	Obra aurrekontuaren % 0,31
2.- Industria eta zerbitzutarako lizentziak.....	Obra aurrekontuaren % 0,31

ETXEBIZITZA LEHENENGOZ ERABILI ETA OKUPATZEKO LIZENTZIA:

- Etxebizitza bakoitzeko.	
5 etxebizitza arte.....	51,55 €
6. etxebizitzatik aurrera	25,77 €
- Etxebizitza adosatu bakoitzeko.....	329,67 €
- Familia bakarreko etxebizitzak –nekazaritza ustiapenik gabeak-	379,13 €
- Bi familiako etxebizitzak –nekazaritza ustiapenik gabeak-.....	567,04 €
- Nekazaritza ustiapena duen eraikineko etxebizitza bakoitzeko	25,77 €

PARTZELAK BANANDU ETA BATERATZEKO LIZENTZIA:

- Hiri lurretan:	241,19 €
- Landa lurretan:	72,43 €

Bigarrena.- % 90eko beherapena aplikatuko da etxebizitzak eraikitzeko lizentziak tramitatzean, baldin eta Udalak zeharbidez sustatu baditu, bere lurak besterentzean adjudikazio-hartzaileari etxebizitzak eraikitzeko baldintza jarritz.



2 ERANSKINA

JARDUERA ZABALTZEKO ETA FUNTZIONAMENDUAN JARTZEKO LIZENTZIA EMATEAGATIKO EDO, HALA BALITZ, KONTROL JARDUERA ADMINISTRATIBOAK EGITEAGATIKO TASA

Tasa honen zerga-gaia establezimenduak irekitzeko lizentzia ematea da, edo lizentziaren ordeztasuneko aitorpena edo aurretiazko komunikazioa behar denetan, kontrol jardueren administratiboak egitea.

Lehenengoa.- 2017. urterako tarifak honako hauek izango dira:

JARDUERA:

- Merkataritza.....	465,48 €
- Zerbitzuak	636,69 €
- Ostalaritza.....	884,56 €
- Familia izaerako aisialdia (txokoa)	162,31 €
250 m ² -tik 499 m ² -ra bitartekoetan.....	% 100eko igoera.
500 m ² edo gehiagoko azaleretan.....	% 200eko igoera.
- Industria:	
249 m ² arteko azaleretan.....	764,05 €
250 m ² -tik 499 m ² -ra bitartekoetan.....	2060,14 €
500 m ² edo gehiagoko azaleretan.....	3.597,85 €
	6.791,20 €
- Aurrezki Kutxak, Bankuak, Entitate Finantzarioak.....	20,10 €
- Nekazaritza, abeltzantza edota baso ustiaketatara lotutakoak.....	20 €
- Garajeak	

Tarifa horiei guztiei jardueren-espeditzea tramitatzeko tasa gehitu beharko zaie, eskakizun hori daukaten jardueretan.

Bigarrena.- Honako kasu hauetan:



2.1.- Establezimendua titularrak lehendik egiten zuen jarduera bat lekuz aldatzeagatik zabaltzen bada, lehenengo atalean adierazitako tarifen %50 ordainduko da.

2.2.- Jardueraren titularra aldatzea, jarduera ez baldin bada aldatzen tarifaren %40

2.3.- Jarduera lehenengo titularrak berriz zabaltzea tarifaren % 40

Hirugarrena.- Establezimenduak aldi-baterako zabaltzen direnean:

a) Gutxienez urtebeterako eta gehienez hiru urterako zabaltzen bada, 1. eta 2. ataletan finkatutako tarifen %80 aplikatuko da.

b) Erabilera urtebetekoa baino motzagoa bada, %50 aplikatuko da.

Laugarrena.- Aldi baterako zabaldutako establezimenduen kasuan, murriztutako tipoa aplikatzeko epea igaro ondoren, interesdunak aldi baterako hartu duen lokala utzi egin duela egiaztatzen ez badio Udala Administrazioari, likidazio berria egingo zaio, aplikatutako tarifa murriztua eta eranskin honen 1. eta 2. ataletan aplikatutako arau orokorraren arteko diferentzia likidatuz.

Bosgarrena.- %100eko hobaria emango da industria edo merkataritza jarduera berria jartzeko lokala egokitzeko, jarduera horren sustatzaileak langabezian dagoela egiaztatzen badu. %90eko hobaria emango da egun dagoen industria edo merkataritza jarduera baterako lokala egokitzeko, jarduera horren sustatzaileak langabezian dagoela egiaztatzen badu. % 75eko hobaria emango da industria edo merkataritza jarduera berria jartzeko lokala egokitzeko hiri lurzoruan, edo landa lurzoruan kokatutako eta egun herrian egon dagoen jarduerarako lokala egokitzeko, nahiz eta jarduera horren sustatzailea langabezian ez egon.

Jarduera berria izango da tasa kitatzeko unean ez dena egiten udalerrian Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergako sailkapen berarekin.

3 ERANSKINA

HIRUGARREN BATEK ESKATUTA UDAL ADMINISTRAZIOAK EDO UDAL AGINTARIEK EMATEN DITUZTEN DOKUMENTUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK

Lehen atala: Biztanle eroldari dagokionez:

1.- Udala Erroldan izena emanda daudela ziurtatzen duten egiaztagiria:	
- Aurreko urteetako erroldak	4,35 €

Bigarren atala: Lizentzia edo baimenak eskatzeko espedienteak:

1.- Lur azpia aztertze probak egitea, zangak zabaltzea edo zoladura edo espaloiak berritzea	4,60 €
2.- Bide publikoa eta udalerriko erabilera publikodun bestelako ondasunak erabiltzea ...	2,50 €



3.- Bide publikoaren eta udalerriko erabilera publikodun bestelako ondasunen lur-azpia erabiltzea.....	12,40 €
4.- Tarifarik ezarrita ez duten bestelako udal lizentzia edo baimenak.....	2,55 €

Hirugarren atala: Udalaren eskumenekoak diren bestelako gaiak:

1.- Hirigintza egiaztagiriak	8,65 €
2.- Tarifarik ezarrita ez duten bestelako udal-egiaztagiriak (orriko)	1,75 €
3.- Agiri partikularretan Alkatetzaren oniritzia edo konpultsak.....	0,17 €
4.- Hiri finen aurri-egoeraren adierazpen espedienteak	46,85 €
5.- Jarduera lizentzia behar duten jarduera espedienteak.....	242,30€
6.- Goiko espedienteak, baina lizentzia ukatzen denean.....	158,00 €
7.- Aurrez jakinarazi beharreko jarduera espedienteak (lizentzia emandakoan.).....	122,90 €
8.- Goiko espedienteak, baina lizentzia ukatzen denean.....	77,25€
9.- Hirigintza lizentziak eskatzeko espedienteak, lizentzia ukatzen denean edo baimendutako obra ez egitea erabakitzen duenean interesdunak. Aurkeztutako aurrekontuaren arabera:	Hirigintza lizentziaren tasaren % 50
10.- Hirigintzako tramiteak: Egunkarrietan eta dagokion Aldizkari Ofizialean iragarkia jartzeak daukan kostuaz gain: Plan Partziala..... Plan Berezia..... Jarduera sistema aldatzea..... Xehetasun azterketa..... Urbanizazio proiektua..... Birpartzelazio proiektua..... Hirigintza jarduketarako programa..... Tarifarik ezarrita ez duten bestelako espedienteak.....	1.796,85 € 1.796,85 € 971,55 € 971,55 € 971,55 € 901,35 € 971,55 € KOSTE ERREALA
11.- Udal etxebizitza tasatutzat sailkatzea.....	519,10 €
12.- Lokal bat udal etxebizitza tasatutzat sailkatzea	155,75 €



13.- Hirigintza kontsultak.....	31,15 €
14.- Arma txartelak	6,25 €
15.- Fotokopiak.	
DIN A-4: (ez dira 10 kopia baino gehiago egingo). Kopia bakoitza.....	0,15 €
DIN A-4 eta konpultsa: 5 ale baino gehiagoko konpultsetarako kopiak udal zerbitzuan bertan egin beharko dira. Aleko.....	0,21 €
DIN A-3: Kopia bakoitzeko.....	0,20 €

Jarduera espediente batzuetan udal zerbitzuen ahalmena motz geratzen denean, gerta daiteke hirugarren batengana jo behar izatea. Horretarako arrazoiak ezberdinak izan daitezke: espedientearen izaera edo tamaina; Ingurumen Sailak ezarritako neurri zuzentzaileak edo espedientearen beraren zehaztapenak bete direla ziurtatzeko ikuskapen berezia behar izatea. Horrelako kasuetan Udalaren esku geratzen da hirugarren horren lanak sortutako gastuak atal honetan sartu ala ez erabakitzea, betiere espedientearen promotoreari aldez aurretik jakinarazita.

4 ERANSKINA

UDAL HILERRIKO ZERBITZUENGATIKO TASA

a) Lagatzea:

1.- Hezurtegi bat 75 urterako lagatzea. Instalazioaren koste errealak, gehienez ere

486,63 €

2.- Horma-hilobi bat 10 urterako lagatzea, marmolezko plaka barne

401,87 €

• Hezurrak lekuz aldatzea, interesdunak hala eskatuta:

1.- Hilerriko leku batetik bestera:

- Heriotza egunetik lekuz aldatu den egunera arte 10 urte baino gehiago pasatu direnean

22,72 €

- Heriotza egunetik lekuz aldatu den egunera arte 10 urte baino gutxiago pasatu direnean

47,89 €



c) Zerbitzuak ematea:

1.- Kanposantuetan lurperatze zerbitzua ematea:

- Horma-hilobian	64,92
- Panteoian	100,67€
- Lurpean	
Udal hilerrian	194,78€
Elizateetako hilerrietan	207,25 €
• Hezurtegian edo kolunbarioan	37,40 €

2.- Interesdunak hala eskatuta eta Udalaren baimenarekin jabetza partikularrekoak diren panteoietan beste zerbitzu batzuk ematea (hondakinak ateratzea, garbitzea, obrak egitea, mantentzea, etab.)

37,40 €/orduko lanegunetan
(larunbatetan izan ezik)

3.- Gorpuzkinak erretzea

42,66 €/orduko jaiegun eta
larunbatetan

Larunbatak:

74,02 €

4.- Errautsak kutxan jasotzea, interesdunak eskatuta

28,26

5 ERANSKINA

TAXILIZENTZIEN TASAK

- 1.- Udal lizentzia berria ematea: **1.341,75 €**
- 2.- Lizentzia erabili eta ustiatzea, urteko **72,80 €**
- 3.- Lizentziaren esku-aldatzea baimentzea **1.699,65 €**
- 4.- Baimendutako ibilgailua aldatzea **24,60 €**



6 ERANSKINA:

Mankomunitateko zerbitzuak: hiri hondakin solidoak jaso, garraiatu eta birrintzeagatiko tasa

1. artikulua. Lege oinarria

Apirilaren 21eko Hondakinen 10/98 Legeak, apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak, eta aplikatu beharreko gainerako legeriak ezartzen duenaren arabera, herri erakundeen ardura da hiri hondakinak eta asimilagarriak jaso, garraiatu eta gestionatzea.

Zerbitzu hori Debagoieneko Mankomunitatearen bidez ematen du Udalak.

Gipuzkoako Foru Ogasunak Arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak bere 20 artikuluan ezarritakoaren arabera, Udal honek jarraitu egingo du zerbitzu horri dagokion tasa ordainarazten.

2. artikulua. Definizioak

- Hiri hondakinak eta asimilagarriak: Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/98 Legean ezarritako definizioa.
- Jasotzeko puntua: nahastutako hiri hondakinak (zaborra) jasotzeko ezarrita dagoen puntua, bai lurrekoa eta bai kontenedoreetakoa. Jasotze berezia egiteko dauden puntuak ez dira hemen sartzen.

3. artikulua. Zerbitzuaren erabilera

Mankomunitateko Zerbitzua indarrean dauden lege, erregelamendu eta arauak errespetatuz erabiliko da.

4. artikulua. Zergaia.

Hiri hondakinak jaso, garraiatu eta gestionatzeko zerbitzua da zerga honen gaia. Zergari dagokionez, jasotze bereziak ez dira zergagai izango.

5. artikulua. Zerga-betebeharra

Zerga betebeharra derrigorrezko zerbitzu orokor honek eragiten du. Etxebizitza jabeak eta komertzio, industria eta zerbitzu jardueretako jabeak dira zerbitzu honen erabiltzaileak, eta beraz, pertsona fisiko nahiz juridiko orok ordaindu behar du zerbitzu hau.

6. artikulua. Subjektu pasiboak

Tasa hau pertsona fisiko edo juridikoei ordainduko dute, baldin eta komertzio, industria eta zerbitzu jardueretarako lokalen baten edo etxebizitza baten (bertan bizi ala ez) jabe badira, edo horietakoren bat okupatzen badute.

Ez dira subjektu pasibo izango:

- Ibilgailu garajeen titularrak, baldin eta garaje horietan diru irabazia sortzen duen jarduerarik gauzatzen ez bada.
- Etxebizitzarekin zerikusirik ez daukaten lokal eta etxabeen jabeak, baldin eta lokal horietan inolako jarduerarik gauzatzen ez bada.



- Aurri-egoeraren adierazpena duten eraikinen jabeak, eta adierazpen hori izan gabe ere, bizitzeko egokiak ez diren etxeen jabeak.
- “Udal benefizentzia erroldan” dauden zergadunak.
- Zaharren egoitzak eta antzerako zentroak, udal benefizentziak erabat mantentzen dituztenak, eta inolako diru laguntzarik jasotzen ez dutenak.

Subjektu pasiboa hau izango da: zergaldiaren lehendabiziko egunean jabea edo jabeakidea dena. Maizterrak jabearen baimena behar du hiri hondakinen zerbitzuan zergadun izan nahi badu. Baimena eman zaiola frogatzeko, alokairu-kontratua aurkeztu behar du maizterrak, nagusiak sinatuta.

7. artikulua. Zergadunen sailkapena

Tasa hau aplikatzeko, zergadunak honako kategoria, talde eta azpitaldetan sailkatzen dira.

1. KATEGORIA. Etxebizitza partikularra.	Azpitaldea
10. taldea. Etxebizitza partikularrak	
Etxebizitza partikularrak	101
2. KATEGORIA. Biltegi eta komertzioak	
20. taldea. Biltegiak, oro har	
Biltegiak, oro har	200
Olio biltegiak	201
Edari biltegiak	202
Kolonialen biltegiak	203
Pentsu biltegiak	204
Paper eta pintura biltegiak	205
Produktu industrialen biltegiak	206
Egur biltegiak	207
Burdin biltegiak	208
21. taldea. Arropa dendak	
Boutique eta konfekzioa	210
Artile dendak	211
Kinkila dendak (mertzeria)	212
Moda dendak	213
Ehun dendak	214
Tindategiak eta garbitegiak	215
Zapata dendak	216
Aterki, goardasol eta kapela dendak	217
22/23. taldea. Luxuzko artikulak eta apaingarriak saltzeko dendak	



Arma dendak eta ehiza-arrantza artikulua	220
Kirol artikulua	221
Drogeriak	222
Bitxi dendak	223
Jostailu dendak	224
Liburu dendak	225
Ile-apaindegiak eta edertze aretoak	226
Lurrin dendak	227
Opari dendak	228
Erloju dendak	229
24. taldea. Etxea hornitzeko dendak	
Elektrizitate dendak	240
Elektratresna dendak	241
Burindegiak eta brikolaje dendak	242
Altzari dendak	243
Paper eta pintura dendak	244
Saneamendurako artikuluen dendak	245
25. taldea. Kontsumorako artikuluen dendak	
Ikaztegiak	250
Estankoak	251
Farmaziak	252
Okindegiak	253
Egunkari eta aldizkarien salmenta	254
Kiniela salmenta	255
26/27. taldeak. Jarduera profesionaletarako lokalak	
Abokatuak	260
Arkitektoak eta ikerketa bulegoak	261
Dentistak	262
Farmaziak	263
Argazki dendak	264
Gestoriak eta autoeskolak	265
Apaindegiak	266
Inprimategiak	267
Medikuak	268



Notariotzak	269
Bulegoak eta sindikatuak	270
28. taldea. Zerbitzuetarako lokalak	
Eskolak, ikastetxeak, ikastolak, haurtzaindegiak eta irakaskuntzarako beste lokal batzuk	280
Elizak, kaperak, gurtzarako lekuak, komentuak	281
Eraikin publikoak: Udalarenak, Mankomunitatekoak, probintziakoak, Eusko Jaurlaritzakoak, merkatuak, hiltegiak	282
Bibliotekak, kultur aretoak, erakusketa aretoak, kirol elkarteak	283
Kiroldegiak, igerilekuak, kirol zentroak, futbol zelaiak, zezen plazak	284
Jubilatuak, zaharren egoitzak	285
3. KATEGORIA. Ostalaritza, Elikagaiak eta Zerbitzuak	
30/31. taldeak. Elikagaiak	
Hegaztiak eta arrautzak	300
Karameluak	301
Harategiak	302
Kolonialak	303
Gozo dendak	304
Ekonomatoak	305
Fruta dendak	306
Pasteleriak	307
Arrandegiak	308
Supermerkatuak	309
Janari-dendak, ultramarinoak	310
Esnea saltzeko dendak	311
32. taldea. Ostatu-ematea	
Ostatuak	320
Fondak	321
Hostalak	322
Hotelak	323
Pentsioak	324
Erresidentziak	325
33. taldea. Edaritegiak	
Bar-ak	330
Upategiak	331



Kafetegiak	332
Klubak.	333
Pubak	334
Snack-Bar	335
Tabernak	336
Ardandegiak	337
34 taldea. Jateko lekuak	
Merenderoak	340
Jatetxeak, Self-service	341
Elkarte gastronomikoak	342
35. taldea. Zerbitzuak	
Bidaia agentziak	350
Bankuak	351
Aurrezki kutxak	352
Aseguru etxeak	353
Posta bulegoak, telefonoak, epaitegia, polizia, Ertzantza	354
4. KATEGORIA. Industria jarduerak eta zerbitzuak	
40. taldea. Industria produktiboak	
Aroztegiak, zerrategiak, altzaritegiak	400
Errementeriak, fundizioak	401
Soldadura	402
Sopletistak	403
Fabrika eta industriak, oro har	404
Trokeleriak, moldeak eta matrizeak	405
Auto konponketa	406
Iturginak	407
41. taldea. Aisialdiko industria	
Zine aretoak	410
Dantzalekuak	411
Joko aretoak	412
Antzokiak	413
42. taldea. Zerbitzuak	
Garajeak -negozioa-	420
Ibilgailuen konponketa	421



Hornikuntza industrialak	422
Garraio agentziak	423
Garbiketa enpresak	424
5. KATEGORIA. Aurrez hitzarturiko zerbitzuak	
50. taldea. Aurrez hitzarturiko zerbitzuak	
Aurrez hitzartutako zerbitzuak	500
Klinikak	501
Ospitaleak	502
Anbulatorioak	503

8. artikulua. Tarifak, baliokidetasunak eta irizpideak

Zergadun bakoitzak bere kategoriari dagokion tarifaren tasa ordaindu behar du. Tarifa bakoitzaren tasak ondoren adierazten den baliokidetasuna dauka 1.1 tarifarekiko.

KATEGORIA	TARIFA	LANGILE KOPURUA	BALIOKI DETASUN A	SEHILEKO TASA €
1. Etxebizitzak	1.1. Arrunta.	-	1,00	52,98
	1.2 Organikoa kudeatzen duten gunekak	-	0,4	21,20
	1.3 Ekarpeneko erabiltzailea.	-	0,75	39,74
	1.4 Ekarpeneko erabiltzaile konpostatzailea.	-	0,50	26,49
	2. Biltegi eta komertzioak	2.1	≤2	3,18
2.2		≤5	5,30	280,79
2.3		≤15	10,60	561,58
2.4		>15	15,90	842,37
	3.1	≤2	4,24	224,63
	3.2	≤5	7,95	421,18



3. Ostalaritza, elikagaiak eta	3.3	≤ 15	13,25	701,97
	3.4	> 15	18,55	983,10
4. Industria jarduerak eta zerbitzuak	4.0	≤ 2	3,18	168,47
	4.1	≤ 5	8,48	449,25
	4.2	≤ 15	15,90	842,37
	4.3	≤ 50	21,20	1.123,16
	4.4	≤ 100	26,50	1.403,95
	4.5	≤ 500	31,80	1.684,74
	4.6	> 500	37,10	1.965,53
5. Aurrez hitzartutako zerbitzuak	5.1	-	21,20	1.123,15

Tasa horiek aplikatzeko honako irizpideak hartuko dira kontuan:

1.- Ez dira zergaduntzat hartuko egoitza soziala Eskoriatzan izan eta erakundearen helburuak benetan eta modu eragingarrian Eskoriatzan garatzen dituzten gobernu kanpoko erakundeak eta horiekin parekatu daitezkeen irabazi asmorik gabeko elkarteak.

2.-Etxebizitzak (1 kategoria). Lau tarifa bereizten dira:

1.1.- Arrunta. Tarifa honetan sartzen dira hiri lur edo lur urbanizagarrian kokatutako etxebizitzak.

1.2 Organikoa kudeatzen duten gunek. Tarifa honetan sartzen dira organikoa kudeatzea erabaki duten gunetako lurzoruetako subjektu pasiboak.

1.3 Ekarpeneko erabiltzailea. Tarifa honetan sartzen dira ekarpen gunetara hondakinak eramaten dituzten subjektu pasiboak.

1.4 Ekarpeneko erabiltzaile konpostatzailea. Tarifa honetan sartzen dira konposta egiten duten ekarpen gunetara hondakinak eramango dituzten subjektu pasiboak.

3.-Hiri hondakinak jasotzeko maiztasunak edo asteko bilketa kopuruak ez du loturarik izango erabiltzaileak ordaindu behar duen tasarekin.

4.- Eraikina edo etxebizitza hutsik egoteak ez du esan nahi jabeak tasa ordaindu behar ez duenik.

5.- Aisialdirako elkarteak. Baliokidetasun hau daukate:

a) ≤ 50 sozio, 3.1 tarifaren baliokidea.

b) > 50 sozio, 3.2 tarifaren baliokidea.

6.- Jarduera profesional edo komertzialak eta zerbitzuetaoak, baldin eta inoren bizileku diren etxebizitza edo lokaletan gauzatzen badira: ile-apaindegiak, kontsultak, etab. Tarifa zein den ezartzeko, kontuan hartuko



da alde batetik etxebizitza, eta bestetik bertan gauzatzen den jarduera; izan ere, jarduera profesionalak eta etxebizitzak, bakoitzak bere hondakinak sortzen ditu eta bakoitzari bere tasa ezarri behar zaio.

7.- Biltegietarako lokalak. Zergaduna, biltegi horretan merkataritza edo industria jarduera gauzatzen duena izango da. Jarduera herriko beste lokal edo leku baten gauzatzen badu eta lokala materiala gordetzeko bakarrik erabiltzen badu, berriz, ez da zergaduntzat hartuko, nahiz eta zergadunen erroldan egon.

8.- Gurtzarako lekuak eta komentuak 2.1. tarifan sartuko dira.

9.- Eskolak, ikastolak, akademiak, ikastetxeak, haurtzaindegiak, etab. 2 kategorian sartuko dira, eta dagokien tarifa aplikatuko zaie, irakasle kopuruaren arabera.

10.- Zaharren egoitzak eta ikasleen egoitzak 2. kategorian sartuko dira eta dagokien tarifa ezarriko zaie, ohe kopuruaren arabera.

11.- Auzo-etxei edo auzo lokalei 1.1 tarifa ezarriko zaie aurrez herri onurakotzat izendatzen badira.

12.- Familiako txokoei 1.1 tarifa ezarriko zaie.

13.- Lur ez urbanizagarrian kokatutako 2., 3., 4. eta 5. kategoriei 1.3 eta 1.4 tarifen baliokidetasun tasa aplikatuko zaie horietan aurreikusitako baldintzak egiaztatutakoan.

14.- 1.1. tarifan %25eko hobaria izango dute autokonpostajea egiten dutela egiaztatzen dutenek.

9. artikulua. Errolda.

1. Errolda sei hilero egingo da eta bertan agertuko dira zergadunak zeintzuk diren eta ordenantza honen arabera zein kuota likidatuko zaien. Errolda hori jakinarazteko eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko, errolda jendaurrean jarriko da 15 egunez Udaleko iragarki oholean; eta aldi berean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta ediktu bidez, ohi den eran, zabalduko da herrian.

2. Jende aurreko erakustaldia amaitutakoan, aurkeztu diren erreklamazioei buruzko erabakiak hartuko ditu Udalak eta Errolda behin betiko onartu ondoren, kobrantzak egiteko erabiliko du.

10. artikulua. Bajak.

Bajak, beranduenez ere, zergaldi bakoitzeko azken lanegunean jakinarazi behar dira, hurrengo aldian eragina izan dezaten. Baldintza hau betetzen ez dutenek tasa ordaindu behar dute derrigorrez.

Komertzio, ostalaritza, industria eta zerbitzuei dagokienez, jardueraren baja eguntzat Udalean baja jakinarazten den eguna hartuko da.

11. artikulua. Altak.

Ekitaldiaren barruan egindako altek, zerga-betebeharra sortzen den egunetik aurrera izango dute eragina. Administrazioak subjektu pasiboei jakinarazi behar die erroldako altari dagokion kitapena, honako puntuak zehaztuz:

a) Kitapenaren oinarritzko elementuak.

b) Aurka egiteko erabil daitezkeen bide nagusiak, bertan adieraziz zein epetan eta zein erakundetan aurkeztu.

c) Zerga ordaintzeko lekuak, epeak eta erak.



12. artikulua. Sortzapena.

Sei hilero kobratuko da tasa, aldiaren hasieran; eta erreziboa osoa izango da, zatitzeko aukerarik gabe, baldin eta zerga-betebeharra aldi laburrago baterako izan ez bada. Aldiak, urtarrietik ekainera eta uztailetik abendura izango dira; eta kobratzeko garaiak, urtarrila-otsaila eta uztaila-iraila.

7 ERANSKINA

UR HORNIKUNTZA ESKAINTZEAGATIKO TASA

Tarifak honako hauek dira:

1- Etxeko erabilera: etxebizitzak, lokal komertzialak, komertzioak eta industria familiarrak.

Tarifa finkoa €/hiruhileko	18,00
-----------------------------------	-------

Tarifa aldakorra, kontsumoaren arabera, €/hiruhileko	€
Kontsumo-tartea: 0 m ³ - 20 m ³ m ³ bakoitzeko.....	0,6932
Kontsumo-tartea: 21 m ³ - 60 m ³ 20 m ³ -tik gorako m ³ bakoitzeko.....	1,0745
Kontsumo-tartea: 61 m ³ - 90 m ³ 60 m ³ -tik gorako m ³ bakoitzeko.....	2,7728
Kontsumo-tartea: 91 m ³ edo handiagoa 90 m ³ -tik gorako m ³ bakoitzeko.....	6,9320

Oharra: m³-aren prezioa ezberdina da kontsumo tarte bakoitzeko. Beraz, ordaindu beharreko kuota kalkulatzeko, dagokion guztiaren batura egin beharko da.

2.- Industria erabilera: etxeokak ez direnak, hala nola, industria, igerilekuak, tabernak, elkarteak eta abar.

Hiruhileko kontsumoa	2017
Gutxieneko kuota (hiruhilero ordaindu)	81,98



beharrekoa)	
Kontsumo-tartea: 0 m ³ - 60 m ³	
Kontsumo-tartea: 61 m ³ - 150 m ³	
60 m ³ -tik gorako m ³ bakoitzeko.....	2,15
Kontsumo-tartea: 151 m ³ – 300 m ³	
150 m ³ -tik gorako m ³ bakoitzeko.....	2,40
Kontsumo-tartea: 301 m ³ -tik gora	
300 m ³ -tik gorako m ³ bakoitzeko.....	2,49

3. Sareari lotzeagatiko eskubideak. (BEZ gabe)

EUROAK

1. Kontagailua jartzea..... 23,10 €
2. Abonatuari hargunean lehen aldiz egindako lotunea 27,3 €
3. Harguneko lotunean jarrita dagoen prezintua kentzea abonatuari..... 120 €
4. Eragile edo jabeari sare orokorrean lehenengo aldiz egindako lotunea (eskapeko edo lur urbanizatuko adosatu edo familia bakarreko etxebizitza bakoitzeko).....146,48 €
- e) Hargune puntua aldatu delako sare orokorrean lotunea egitea sustatzaileari edo jabeari (eskapeko) 231,90 €

f) Industriak:

- 1,5 hazbeteko hodia 693,63 €
- 2,5 hazbeteko hodia 1.140,3 €
- 3 hazbeteko hodia1.953 €

g) Elizateetako ur-biltegien klorazioa.

Abonatu bakoitzaren urteko kuota (BEZ gabe)..... 56,86 €



ESTOLDERIA, ETA KONTADOREAK MANTENDU ETA IRAKURTZEAGATIKO TASA

1- Etxeko erabilera: etxebizitza, lokal komertzialak, komertzioak eta industria familiarrak.

Estolderia, eta kontadoreak mantendu eta irakurtzeko zerbitzuagatik **12 €**-ko (gehi BEZ) kuota finkoa kobratuko da hiru hilabete behin.

2.- Industria erabilera: etxeok ez direnak, hala nola, industria, igerilekuak, tabernak, elkarteak eta abar.

Kontadoreak mantendu eta irakurtzeko zerbitzuagatik **3,60 €**-ko (gehi BEZ) kuota finkoa kobratuko da hiru hilabete behin.

Estolderia zerbitzuagatik, fakturatutako uraren **%33** (gehi BEZ) kobratuko da.

9 ERANSKINA

KIROL INSTALAZIOAK ETA KIROL ZERBITZUAK ERABILTZEAGATIKO TASA

KIROLDEGIKO TARIFAK 2017						
	ERROLDATUAK			EZ ERROLDATUAK		
	Hilabetekoa	Hiruhilekoa	Urtekoa	Hilabetekoa	Hiruhilekoa	Urtekoa
BANAKAKOA						
6-18 urte	10,50	16,50	61	15,50	20,50	81
> 18 urte	15,50	35,50	111,50	20,50	40,50	142
Langabetuek (>3 hilabete)	15,50	20,50		15,50	20,50	
Ikasleek (25 urte arte)	15,50	20,50	81	15,50	20,50	81
Ezgaituek (>% 33a)	15,50	20,50	81	15,50	20,50	81
> 65 urte*	15,50	20,50	81	15,50	20,50	81
> 80 urte*	-----	-----	-----	15,50	20,50	81



Kirol Elkartea		5,50			10,50	
FAMILIAKOA: 18 urtetik beherako seme-alabak, edo langabezian edo ikasten dauden 25etik beherakoak sartzen dira. 6 urtetik beherakoek, bazkide diren gurasoak badituzte, ez dute sarrerarik ordainduko.						
Normal	25,50	45,50	152	40,50	71	182,50
Familia ugaria, bikoteko bat langabezian (>3 hilabete), familia monoparentala edo 65 urtetik gorako bikoteak	22,50	37,50	121,50	35,50	51	137
Biak langabezian (>3 hilabete)	15,50	25,50		15,50	25,50	
AURRE MATRIKULA	10,50	Hileko eta hiruhileko tarifa guztietan hasieran eta jarraipenik ez dagoenean.				

*> 65 años: Hileko eta hiruhileko abonuetan jubilatutako tarifa onartuko da abonutako denbora horretan 65 edo 80 urte betetzen baldin badira. Urteko abonuan, aldiz, erreferentziazko adina urte horretako urtarilaren 1ekoa izango da, hau da, jubilatutako tarifa onartzeko 65 edo 80 urte izan beharko dira urte horretako urtarilaren 1ean.

EGUNEKO SARRERRA	
6-18 urte	3
> 18 urte	5
Langabetuak eta ezgaituak	3
10 SARRERAKO BONOA	
< 18 urte	25,50
> 18 urte	46
100 SARRERAKO BONOA	



	304
BESTE BATZUK	
Karneta berriztatzea	3
Dutxa	1,50

ALOKAIRUAK (ordu bete)	ERROLDATUAK		EZ ERROLDATUAK	
	Argi gabe	Argiarekin	Argi gabe	Argiarekin
Kiroldegiko kantxa	35,50	40,50	40,50	45,50
Kiroldegiko kantxa (egun osoa)	1012			
Kiroldegiko kantxa (egun erdia)	608			
Minifrontoia	5,50			
Pilotalekuko kantxa	5,50	10,50	7,50	12,50
Pilotalekuko gimnasioa	20,50			
Igerilekuko kale bat	51			
Igerileku osoa	202,50			

Alokatzerakoan ordaindu beharreko fidantza:

Epe baterako alokairuak.- Ordenantza fiskaletan lokal horretarako ezarritako hilabete bateko alokairuaren prezioa aurreratuko da, alokatutako udal lokala erabiltzeko epea amaitutakoan itzuliko dena.

Unean uneko alokairuak.- Ordenantzan fiskaletan lokal horrentzako ezarritako tarifaren %10 ordaindu beharko da.

Erreserbak kobratzeko modua eta baja eskaera

Kobrantzak hilaren azkenean kargatuko dira erabiltzaileak emandako kontuan.



Baja eman nahi denean, aurreko hilaren 25a baino lehen entregatu beharko da baja eskaera kiroldegian. Alokaturako instalazioa, aurrez baja eskatu gabe, ez erabiltzeak ez du salbuetsiko instalazio horretarako ezarritako prezio publikoa ordaintzetik.

Kirol ekintzen tarifak 2017	ABONATUA K	EZ ABONATUA K	ABONATU AK	EZ ABONATU AK
	HILEKO TARIFAK	HIRUHILEK O TARIFAK	HILEKO TARIFAK	HIRUHILEK O TARIFAK
Pilateseko norbanako testa, 30'	16,50		21,50	
Wellness: pilatesa, k-strechta, GAH, luzaketa globaletako beste metodoak eta antzeko jarduerak, 2 egun, 60'	36,50	98,50	47	125,50
Wellness: pilatesa, k-strechta, GAH, luzaketa globaletako beste metodoak eta antzeko jarduerak, 2 egun, 45'	27,50	74	34,50	93,50
Wellness: pilatesa, k-strechta, GAH, luzaketa globaletako beste metodoak eta antzeko jarduerak, 2 egun, 30'	18,50	50	23,50	63
Wellness: pilatesa, k-strechta, GAH, luzaketa globaletako beste metodoak eta antzeko jarduerak, egun 1, 60'	18,50	50	23,50	63
Fitness, entrenamendu funtzionala (spininga, body tonoa, zumba, body balantzea) eta antzeko jarduerak, 2 egun, 60'	31,50	85	41,50	112,50
Fitness, entrenamendu funtzionala (spininga, body tonoa, zumba, body balantzea) eta antzeko jarduerak, 2 egun, 45'	25,50	68	32,50	87,50
Fitness, entrenamendu funtzionala (spininga, body tonoa, zumba, body balantzea) eta antzeko jarduerak, 2 egun, 30'	16,50	43,50	21,50	58
Fitness, entrenamendu funtzionala (spininga, body tonoa, zumba, body balantzea) eta antzeko jarduerak, egun bat, 60'	16,50	43,50	21,50	58
Gazte ekintzak: spininga, zumba eta antzerakoak, 2 egun, 60'	30,50	82	40,50	109,50
Gazte ekintzak: spininga, zumba eta antzerakoak, egun bat, 60'	15,50	40,50	20,50	55
60 urtetik gorakoentzako gimnasia, 2 egun, 60'				



	16,50	43,50	21,50	58
Ezinduentzako gimnasia, 2 egun, 60'	16,50	43,50	21,50	58
Running, patinajea, nordic walkinga eta antzeko jarduerak, 2 egun, 60'	31,50	75	41,50	112,50
Running, patinajea, nordic walkinga eta antzeko jarduerak, 2 egun, 45'	25,50	68	32,50	87
Aquagyma, aquafitnessa, aquarunninga eta igeriketa helduak, 2 egun, 60'	31,50	85	41,50	112,50
Aquagyma, aquafitnessa, aquarunninga eta igeriketa helduak, 2 egun, 45'	25,50	68	32,50	87,50
Aquagyma, aquafitnessa, aquarunninga eta igeriketa helduak, egun bat, 60'	16,50	43,50	21,50	58
Aquagyma, aquafitnessa, aquarunninga eta igeriketa helduak, egun bat, 45'	12,50	32,50	14,50	38,50
Igeriketa umeak 2-4 urte, egun bat, 30'	9,50	24,50	11,50	30,50
Igeriketa umeak 2-4 urte, 2 egun, 30'	18,50	50	23,50	63
Igeriketa umeak, 2 egun, 30'	18,50	50	23,50	63
Igeriketa umeak, egun bat, 60'	18,50	50	23,50	63

1.- Plaza erreserbatuta geldituko da izen emate orria behar bezala beteta entregatutakoan banku bidezko ordainketaren egiaztagiriarekin edo banku-helbideratzearekin. Dokumentu biak posta elektronikoz bidali daitezke kiroldegia@eskoriatza.eus helbidera. Garrantzitsua da ordainagirian ikastaroa egin behar duenaren izena agertzea

2.- Ikastarorako ordaindutako dirua bakar-bakarrik jarduera ez bada egiten itzuliko da.

3.- Behin talde bat martxan hasiz gero hiruhilekoren batean, ikastaroa ikasturte osoan emango da, betiere, jarduera horretarako ezarritako jende kopuruaren %80a bermatzen bada gutxienez. Kontuan izango dira ikastaroan parte hartzen dutenen adina, jarduera bera beste orduren batean egotea, taldeak erabili behar zuen ordutegian egon daitekeen eskaintza, zenbat falta den ikasturtea amaitzeko eta ikastaroa nori zuzenduta dagoen.



4.- Jardueraren ondorioz jasan ditzakeen lesioak onartzen ditu erabiltzaileak

5.- Baja eman nahi denean, aurreko hilaren 25a baino lehen entregatu beharko da baja eskaera kiroldegian.

HASTAPENAK	ABONATUAK	EZ ABONATUAK
2 saio (spininga, body tonoa, zumba, GAH, pilatesa, body balantzea...)	9,50	11,50
4 saio (pilatesa)	18,50	23,50

BEHERAPENAK

Fitness – wellness ekintzetan, 2. ekintzatik aurrera: %50eko beherapena merkeenean (ekintzetako bat, gutxienez, 2 eguneko izan behar da)

Zenbait ordu tartetan beherapenak (eguerdian adb. Unibertsitateko ikasleentzat, hitzartutako komertzioetako langileentzat: 3 eguneko ekintza 2 egunekoaren prezioan (gutxienez 12 eta gehienez 20 lagun)

Kirol udalekuen tarifak	ABONATUAK	EZ ABONATUAK
2017		
5 egun, 5 ordu eguneko (6 – 12 urte)	30,50	34,50
9 egun, 4 ordu eguneko (12 – 16 urte)	51	61

* Anai-arreba bakoitzeko 5 €-ko beherapena; eta bi txandetara izena emanaz gero, % 5-eko beherapena.

10 ERANSKINA

HIRI TRAFIKOA ANTOLATZEKO ETA KONTROLATZEKO JARDUERA BEREZIAK
EGITEAGATIK (IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA ERRAZTEKOAK ETA
UDALTZAINGOAREN OHIKO TRAFIKOAREN SEINALEZTAPEN ETA ANTOLAKETAZ
BESTELAKOAK) ORDAINDU BEHARREKO TASA

TARIFAK



Ibilgailuak bide publikotik kentzeagatik eta jabeak jaso bitartean zaintzeagatik.

Tasak honakoaren arabera sortuko dira:

1. Ibilgailuak kentzeagatik:

Udalak ibilgailuak bide publikotik kentzeko zerbitzu propiorik ez duenez, ordaindu beharreko kuota zerbitzuak sortutako gastuen arabera izango da.

2. Kendutako ibilgailuak zaintzeagatik:

Lehenengo ataleko tarifei ibilgailuak gorde eta zaintzeagatik ordaindu beharreko kuotak gehituko zaizkie, baldin eta ibilgailua bide publikotik kendu zenetik gidari edo jabeak jaso artean berrogeita zortzi ordu pasatu badira.

Kuota horiek ondorengoak izango dira:

- A) Bizikleta, motozikleta, ziklomotore, moto-karro eta antzeko ibilgailuak: 5,21 €, egun edo frakzio bakoitzeko.
- B) 1.500 kg arteko tonajea duten auto, triziklo, kuatriziklo, furgoneta, eta antzeko ibilgailuak: 9.35 €, egun edo frakzio bakoitzeko.
- C) 1.500 kg-tik gorako tonajea duten auto, furgoneta, kamioi, traktore, erremolke eta antzeko ibilgailuak: 19,54 €, egun edo frakzio bakoitzeko.

11 ERANSKINA

UDAL MUSEO-ESKOLA ZERBITZUAREN TASA

- Nagusiak: 3 €. Eskoriatzan erroldatutakoek: 2 €
- Umeak (7 urtera arte): doan
- Gazteak (7-18 urte): % 50eko beherapena.
- 6 pertsonako edo gehiagoko taldeak: % 50eko beherapena.
- 65 urtetik gorakoak: % 50eko beherapena.
- 21 Agenda programa barruko bisitak: doan.
- Herriko ikastetxetako ikasle taldeak (16 urtetik beherakoak): doan
- Herriko ikasleek (16 urtetik gorakoak) eta kanpokoek: % 50eko beherapena.
- Langabetuek: % 50eko beherapena.

Gelen erabilera:

1. Erabilera publikoa (hezkuntza eta kulturaren inguruko ekintzak eta irabazi gabeko erakundeek ekintzak): doan.



2. Erabilera pribatua (ezkontzak eta irabazi asmoa duten erakundeetako ekintzak): 100 €

Aretoa aldi baterako, hau da, denbora batean hainbat emanaldi emateko, alokatzen duen pertsona edo taldeari %20ko hobaria egin ahal izango zaio bigarren egunetik aurrera, betiere, interesdunak aurrez horrela eskatzen badu eta Udalak oniritzia emanaz gero

12 ERANSKINA

UDAL-BASKULA ERABILTZEAGATIKO TASA

Pisaldi bakoitzeko: 3,50 €

13 ERANSKINA

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASA

1. artikulua. Zergaia.

Eskoriatzako Udalak eskaintzen duen Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua erabiltzea da zergapeko egitatea.

2. Artikulua. Kontzeptua.

Eskoriatzako Udalak eskaintako Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua Udal Araudian araututakoa izango da. Araudi hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 95. zenbakian argitaratu zen 2006ko maiatzaren 22an.

3. Artikulua. Zerbitzua emateagatiko tasa.

Udalak kontratatuta daukan enpresari orduko ordaintzen diona izango da zerbitzua emateagatiko tasa.

4. Artikulua. Erabiltzaileek egin beharreko ekarpena.

Etxez etxeko laguntza zerbitzuko erabiltzaileak zerbitzuaren kostuaren ehuneko bat ordaindu beharko du, betiere bere gaitasun ekonomikoa kontuan hartuta.

Gaitasun hori zehazteko, zerbitzuko onuradun guztien errenta eta ondarea hartuko dira kontuan.

Erabiltzailearen ekarpena elementu horien arabera ezarriko da, I. eranskinean ezarritako baremoaren arabera.

Gaitasun ekonomikoari buruzko datuak faltsifikatzearen edo ezkutatzearen ondorioz eskaera amaitutzat joko da, edota, zerbitzua emanda badago, zerbitzua iraungitzat joko da. Horrez gain, gertaera horietatik eratorritako ardurak bete beharko dira.

Udalak prezioa ordaintzeko laguntzaren edo hobariren bat eman badio erabiltzaileari, laguntzak emateko udal ordenantza honek arautzen duen diru laguntzak itzultzeko prozedura hasiko da.

Zerbitzuetako erabiltzaileak, eta, hala badagokio, beren legezko ordezkariak, behartuta daude Udalari errentan, ondarean edo etxeko unitatean dauden aldaketen berri ematera, bai eta norberaren ekarpena ezartzeko eragina izan dezakeen beste edozein egoera jakinaraztera ere, horiek gertatu eta 30 eguneko epean.

Horren ondorioz sortzen den edozein aldaketa ekonomikok hurrengo hilean izango du eragina.

Norberaren ekarpenaren baldintzetan edo egoeretan aldaketaren bat dagoenean, udal teknikariek erabiltzailearen banakako ekarpena ofizioz berrikusi beharko dute, bai erabiltzaileak berak hala eskatuta, bai haren ordezkariak eskatuta.



5. Artikulua. Erabiltzaileen ahalmen ekonomikoa zehaztea.

Egoera ekonomikoa balioztatzeko, ondarea (higiezinaren eta higigarrien kapitala) eta errenta (higiezinaren eta higigarrien etekina eta pentsioetatik, soldatetatik, eta abarretatik datozen diru sarrerak) hartzen dira kontuan.

Ikus I. eranskineko A ataleko baremo ekonomikoa ageri diren kontzeptuak.

I ERANSKINA

EKARPEN EKONOMIKOAREN BAREMOA

A) Onuradunen ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko:

Ahalmen ekonomikoa honako balioztatzeko elementu hauen bidez kalkulatu da: errenta, ondarea eta onuradunen kopurua.

1. Errenta da onuradunak edo onuradunek guztira jasotzen dituzten diru sarreren zenbatekoa. Honako hauetatik jaso dezakete:

—Lan etekinak, horren barne egonik pentsioak eta gizarte aurreikuspeneko prestazioak, edozein erregimen dutela ere.

—Kapital higikor zein higiezinaren etekinak.

—Enpresa edo lanbide jardueren etekinak.

2. Ondarea da onuradunen higiezinaren eta higigarrien kapital osoa, eskabidea egin aurreko lau urteak kontuan hartuta balioetsita.

—Kapital higigarritzat jotzen dira: kontu korranteetako eta epe jakinerako kontuetako gordailuak; inbertsio funtsak eta pentsio funtsak; balore higigarriak; bizi aseguruak eta aldi bateko zein biziarteko errentak; arte objektuak, antigoaleko gauzak eta bestelako objektu baliotsuak

—Kapital higiezintzat jotzen dira izaera landatarreko zein hiritarreko ondasunak.

3. Bizikidetzako unitatetzat hartzen da ohiko bizilekuan elkarrekin bizi diren guztiek osatutakoa.

4. Libreki erabiltzeko diru kopurua:

Libreki erabiltzeko zenbatekoa EAEAPren %100 izango da.

Familia edo bizikidetzaren unitatea kide batek baino gehiagok osatzen badute, aurreko zenbatekoari EAEAPren %40 erantsiko zaio bigarren kideagatik eta EAEAPren %30 gainerako kideetako bakoitzarengatik.

B) Onuradunen ekarpena kalkulatzeko, orduko ezarritako prezioaren arabera:

1. Ohiko etxebizitza kontuan izan gabe (ohiko etxebizitza da norbera titularra den etxebizitza, hori ohiko bizitokia izanik), 38.521,61 eurotik gorako per capita ondarea duten eskatzaileek (eranskin honetako kopuru ekonomikoa 2016an eguneratutakoak dira) (kopuru hori Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumo prezioen indizearen arabera eguneratuko da urtero), orduko ezarritako prezio osoa ordaindu behar dute, neurriz gaineratik dagoen kopuruarekin.

Per capita ondarea, zerbitzu motaren arabera, honela zenbatzen da:

—Etxeko laguntza zerbitzua eta zerbitzu mistoa (etxeko laguntza + laguntza pertsonala).

Bizikidetzaren unitateko kideen higiezinaren eta higigarrien per capita kapitala.

—Laguntza pertsonaleko zerbitzua.

Onuradunaren higiezinaren eta higigarrien kapitala.



Ezkontzetan edo izatezko bikoteetan, bi pertsonen ondarea batu eta zati bi egiten da, eta zati bat bakarrik hartzen da kontuan.

2. Onuradunak edo onuradunek errentaren arabera ekarpena egingo dute, ondoren deskribatutako baremoa irizpide hartuta.

Errenta, zerbitzu motaren arabera, honela zenbatzen da:

—Etxeko laguntza zerbitzua eta zerbitzu mistoa (etxeko laguntza + laguntza pertsonala).

Elkarbizitza unitateko kide guztien diru sarrera garbiak.

—Laguntza pertsonaleko zerbitzua, onuradunaren diru sarrera garbiak.

Ezkontzetan edo izatezko bikoteetan, bi pertsonen sarrera garbiak batu eta zati bi egiten da, eta zati bat bakarrik hartzen da kontuan.

C Erabiltzailearen diru ekarpena zehaztea.

Zerbitzuaren kostuaren gainean erabiltzaileak egingo duen ekarpena ondorengo ekarpenen taularen arabera zehaztuko da.

Ekarpena Sarrerak

%1,50 EAEAP %110 arte

%4 EAEAP %111 - 115

%8 EAEAP %116 - 125

%15 EAEAP %126 - 150

%24 EAEAP %151 - 175

%35 EAEAP %176 - 200

%48 EAEAP %201 - 225

%61 EAEAP %226 - 250

%74 EAEAP %251 - 275

%87 EAEAP %276 - 300

%100 >EAEAP %300

Ondoren, aurreikusitako etxeko laguntza zerbitzuko ordu kopuruaren arabera erabiltzaileak hilean egingo duen diru ekarpena kalkulatu da eta bermatutako libreki erabiltzeko zenbatekoa aplikatu da.

Aurreko eragiketa egin ondoren ez bada libreki erabiltzeko diru kopurua bermatzen aurreko diru sarrera tarteari dagokion ekarpen portzentaia aplikatu da libreki erabiltzeko diru kopurua bermatu arte.

Erabiltzailea aldi berean beste gizarte zerbitzu baten onuradun ere bada, pertsonaren ekarpen ekonomikoa horrela balioztatuko da:

—Pertsona autonomoentzako bestelako bizitokiak:

Lehenik eta behin, ahalmen ekonomikoa balioztatuko da bestelako bizitokietarako (gizarte etxebizitzak, etxebizitza komunitarioak) ekarpen baremoen arabera; bigarren, diru sarrerei bestelako bizitoki horren kostuaren ordainetan egiten den ekarpenaren %100 kendu ondoren, gelditzen zaion ahalmen ekonomikoa balioetsiko da, etxeko laguntza zerbitzuko ekarpen baremoa aplikatuz.

—Eguneko zentroa eta gainerako zerbitzuak:

Diru sarrerei eguneko zentroaren edo dagokion zerbitzuaren ordainetan egiten duen ekarpenaren %100 kenduko zaie.



14 ERANSKINA

ANIMALIAK EDUKITZEAGATIK ETA ZAINKETA ZERBITZUAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

Animalia arriskutsuen erroldan alta ematea..... 31 €

Bide publikotik txakurrak jasotzea:

- txakurra jasotzea..... 31 €

- txakurtegian edukitzea (egun bakoitzeko)..... 11 €

Txartel berri bakoitza (berria egitea, berriztatzea, galtzeagatik...).....7 €

15 ERANSKINA

ESKORIATZAKO TELEBANAKETA SAREARI LOTUNEA EGITEKO LIZENTZIA EMATEAGATIKO TASA

Tasak (BEZ gabe):

- a. Eskoriatzako telebanaketa sareari lotunea egiteko lizentzia emateagatik..... 76,25 €
- b. Urteko kuota, mantentze eta kontserbazioagatik, etxebizitzako.....19,00 €
- c. Urteko kuota, mantentze eta kontserbazioagatik, publikora zabalik dagoen establezimendu bakoitzeko (tabernak)..... 30,60 €

16 ERANSKINA

ZUBIATEKO LABEAN ZERBITZUAK (bisita gidatuak eta tailerrak) EMATEAGATIKO TASA

- Nagusiak: 4 €.

- Umeak (6 urtera arte): doan

- Gazteak (7-16 urte): 2 €

- 6 pertsonako edo gehiagoko taldeak: % 25eko beherapena.

- 65 urtetik gorakoak: 2 €

- Ikasleek: 2 €

- Langabetuek: 2 €

